




## OINARRIZKO GIDA. BATXILERGOKO SARI BEREZIEN APLIKAZIOA

### INFORMAZIO OROKORRA

**Baimenak:** Matrikulazioa kudeatzen duten irakasleak sar daitezke aplikazioan.

**Aplikaziorako sarbidea:** Hezkuntzako saileko ataritik sartzen da.



Behin aplikazioan sartuta, ezkerrean dagoen goiko barran honako hau egin daiteke:

- Hizkuntza aukeratu
- “Oinarrizko gida” kontsultatu informazio-ikonoan 

**Laguntza:** CAU **901 101 132** (1 luzapena)

### IKASTETXEAREN KUDEAKETA

Ikasleen inskripzioa ikastetxetik egiteko “Ikastetxearen kudeaketa” menua zabaldu behar da. Erakusten den menuak 3 aukera ditu:

- Ikastetxeko zuzendaritza-karguak
- Inskripzio eskaera
- Itxiera

### IKASTETXEKO ZUZENDARITZA-KARGUAK

**Emaizak:** Klikatu botoi honetan aurretik zeuden zuzendaritza-karguen datuak ikusteko.

Datuak aldatzeko klik bikoitza egin behar da dagokion eremuan.

Datu berriak gordetzeko, jarri kurtsorea eremu batean eta sakatu **ENTER**.

**Berria:** Zuzendaritza-kargu berriak sartzeko, sakatu “Berria” botoia eta bete agertzen diren eremuak.



## INSKRIPZIO ESKAERA

Deialdian parte hartu nahi duten ikasleek baino ez dute izena eman behar.

**Berria**: Ikasle baten izena emateko, sakatu “*Berria*” botoia, eta bete erlaitz bakoitzean agertzen diren eremuak:

“*Datu pertsonalak*” : Bete derrigorrezko eremuak. Sakatu ***Gorde*** botoia.

“*Egindako ikasketak*” : Aukeratu atzerriko hizkuntza eta egindako modalitatea. Sakatu ***Gorde*** botoia.

“*Proba*” : Aukeratu proba egiteko ikasgaiak. Sakatu ***Gorde*** botoia.



Sakatu ***Inskripzioa inprimatzea*** ikasleak eskaera eskuratzeko. Ikasleak itzuli beharko du berak edo legezko tutoreak sinatuta.

“*Egoera*” : Inskripzioaren eskaeraren egoera adierazten du (onartuta, bideratzen, ez onartuta).

**Emaitzak**: Klik egin “*Emaitzak*” erlaitza sartu diren ikasleen datuak bilatzeko. Aldatu nahi baldin bada daturen bat, aukeratu ikaslea eta egin aldaketak. Sakatu ***Gorde*** botoia.

## ITXIERA

“*Itxiera*” aukeran klik egiterakoan, azpimenu hau zabaltzen da:

- Itxiera simulazioa
- Ikastetxe-itxiera.

Inskripzioaren prozesua bukatzeko ***honako pausu hauek burutu behar dira***:

“***Itxiera simulazioa***” : Izena eman duten ikasleen zerrenda zuzena dela egiaztatzeko balio du. PDF bat ateratzen da “*ZIRIBORROA*” duen ur-markarekin. Simulazioa egin daiteke nahi beste aldiz, behin betiko itxiera burutu baino lehen.

“***Ikastetxe itxiera***” : Aukera hau sakatuz gero, behin betiko ikastetxearen itxiera gertatzen da eta ***inskrizio-prozesua bukatzen da***.

Behin ikastetxearen itxiera eginda, PDF bat ateratzen da izena eman duten ikasleen zerrendarekin. Zerrenda hori ikastetxeko iragarki-taulan argitaratu behar da.

**IZEN-EMATE EPEA BUKATUTA, EZ DA APLIKAZIOA  
BERRIRO IREKIKO**